

# Abesbatzen Federazioak egoitza berria du Tolosan

**INAUGURAZIOA** ▶ Agintariak plaka jarri zuten atzo ldiakenez jauregian, egoitza berria inauguratzeko

**ERREFERENTEA** ▶ Gipuzkoako abesbatzentzat erreferente bihurtuko da Tolosako jauregia ▶ 6



## Herensugeak piztutako suak ez du etenik

**IRURA** ▶ Ostiralean ekin zieten Iruran San Miguel jaiak Herensugearen jaitzierarekin, eta festa giroak ez du etenik orduki. Atzokoan, patata tortilla lehiaketa, apar festa —argazkian—, marrazki lehiaketa eta herri bazkaria izan ziren, besteak beste

egunean zehar. Gauean, berriz, Pikutara eta Su ta Gar taldeen saiok izan ziren. Gaurkoan, Gorritiren abereak, herri kirolak, dantzariak eta Legoya erromeri taldea izango dira. Bihar indarberitzeko eguna da, eta festak asteartean jarraituko du. n. u. ▶ 7

**IBARRA** ▶

## Bizi-Nahi elkartekoen jaiak amaitzear

Gaurkoan, dantzariak eta bazkaria ▶ 7

**VILLABONA** ▶



NEREA URBIZU

## DVD berria grabatu dute Poxpolok eta Mokolok

Gurea antzokian egindako emanaldian grabatu zuten atzo ▶ 6

PRIMERAN PASA PASATU GABE

Itñaki Labaka+ Mainer eta Ixiar Samar Amaiur Axular 3.0 Desoreka MoussetHakim The Solanos Lamatumba Banda Bassotti

Kenpo Kai erakustaldia Gozategi Emetik Alkarkide Txaranga Betoa Garri Bertso Kabareta Aintzina

Kiki, koko eta moko Trikiçio Susan Tximeleta Txan Maçoa Juan Mari Beltran Ukan Biko Trial Anje Duhalde Nekin Triaitin

Betizuak Bertso saioa Heraniko Ansa Ahizpak Albokariak Pikutara

**KILOMETROAK 06**  
**URRIAK 1**  
**01ARTZUN**



inGoñeu! inGoYeU!  
[www.kilometroak.net](http://www.kilometroak.net)

## IRUDIETAN ▶

Stock azoka  
jendetsua  
Beotibarren

## ESTI EZEIZA

Arrakasta handia izaten ari da eskualdeko lehenengo Stock Azoka. Atzo goizean, sartzeko ilara handiak sortu ziren, nahiz eta eguerdi alderako gauzak lasaitu. Modako arropa, kirolakoa, haurrena, oinetakoak... eros zitezkeen atzo pilotalekuan.

Igarondo Merkatarien elkar-teak antolatuta, denera, eskualdeko, nahiz kanpoko 16 dendek hartu dute parte azokan. Gaur berriro irekiko dituzte atekak, 10:00etatik 21:00etara.



Atzo arratsaldean ere jende asko hurbildu zen Beotibarrera, ikusmiran.



Probagelen faltan, imaginatu egin behar.

## KALERIK KALE ▶ Zein garraibide mota erabiltzen duzu batetik bestera mugitzeko? ▶ Maddi Soroa

MAITANE SARASOLA  
IKASLEA

«Autoan eta trenean joaten naiz»



«Aldaba txikin bizi naizenez, Tolosara jaisteko eta eskolara joateko, autoa erabiltzen dut, ez daukat beste aukerarik. Donostiara joaten banaiz lagunekin, tren hartzen dut».

ANE PAJARES  
ZAINZAILA

«Tolosako autobusean ibiltzen naiz»



«Usabalen lan egiten dut baina ni alde zaharrea bizi naiz, horregatik tolosako autobusa erabiltzen dut, oso erosoa baita. Bestela, mutilarekin kotxez joaten naiz».

PEDRO ELUSTONDO  
ELEKTRIZISTA

«Lanean furgonetaz, herrian oinez»



«Lanerako furgoneta erabiltzen dut materiala garraiatzeko. Tolosan mugitzeko oinez ibiltzen naiz, autoarekin ibiltzeko ez baitago ondo. Donostiara, inoiz joan izan naiz trenez».

AMAIA SARASUA  
IRAKASLEA

«Autoa erabiltzen dut lanera joateko»



«Donostiako ikastolan egiten dut lan eta autoz joaten naiz haraino. Tolosan, ordea, oinez mugitzen naiz. Haurrek patinak eta txirrinda erabiltzen dituzte herrian mugitzeko».

JOXE IBARGUREN  
JUBILATUA

«Oinez asko ibiltzen naiz Tolosan»



«Autoa oso gutxi erabiltzen dut, karga handiko erosketak egiteko bakarrik. Donostiara joateko tren erabiltzen dut beti. Gainontzean, oinez ibiltzen naiz herrian».



**ASTEASU:** Guztiz eraberritua. Hormigoizkoa. Primerakoa. 35.000.000 pzta.  
**TOLOSA:** 3 logela. Eraberritzeko. Hormigoizkoa. 31.000.000 pzta.  
**TOLOSA:** Zumalakarregi. 100 m2. 3 logela, 2 bainugela. Erabat berrituta. Bista ikaragarriak.  
**VILLABONA:** Arroa. Pisu altua igogailu eta berogailuarekin. Berritua eta altzariz hornitua. Ganbara ere badu. 49.000.000 pzta. Interesgarria.  
**VILLABONA:** eraiki berria. 3 logela, egongela handia, sukaldea eta bi bainugela. Altzariz erabat hornitua. 51.000.000 pzta.  
**VILLABONA:** 2 logela. Kalitatezko materialak. Berogailua eta igogailua. 44.000.000 pzta.  
**VILLABONA:** 75 m2 erabilgarriak. Txukuna. Altzariz hornitua. Hormigoizkoa. 36.000.000 pzta.  
**VILLABONA:** 2 logela. Hormigoiez eraikia. Erdi eraberritua. Terraza. 36.000.000 pzta.  
**VILLABONA:** Eraikuntza berriko apartamentua. Bikaina.  
**ZIZURKIL:** Ertzeko etxe itsatsia. Lursailarekin. Aparta.  
**ZIZURKIL:** 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta trastelekua. Terraza ederra. Igogailua. 41.500.000 pzta.  
**ZIZURKIL:** Aurrera plaza. Igogailua eta berogailua. Terraza. Berritua.

**Errota 3 - Villabona**  
**Olatzinmo@euskalnet.net**  
**943 243 118 - 635 706 728**

## UZTURRETIK ▶ EKAIN GARMENDIA

Lost in Jaurilaritza:  
zertan dabilta besteak?

Lehenengo astean telebista espainolak Lost telesailaren bigarren denboraldia estreinatu zuten. Argumentua sinplea da berez: Sidneytik Los Angelesera doan abioi batek istripu bat izan du, eta bidaiariak uharte batean daude galduta. Seriearen planteamendua bitxia da halere, interesgarri egiten duena ez baita argumentua bera (uhartean gertatzen den istorioa, alegia), ikusleak behin ere ezer ez ulertzea baizik. Hau da, uhartean gauza arraroak gertatzen dira, eta ez protagonistek ez guk ez dakigu zer arraio diren gertatzen diren horiek, zergatik gertatzen diren gertatzen direnak; ez zaigu azalpen razional bat eratzeko arrastorik ematen. Ikuslea protagonistak bezain galduta dago: horra telesailaren arrakastaren zergatia.

Euskal politika halako telesail baten tankera hartzen ari dela iruditzen zait: nik behintzat jada ez dut ezer ulertzen. Badaude (dirudienez) egunetik egunera gertuago ditugun mahai inexistenteak eta argi dago protagonista nagusiak ezagutzen ez ditugun indar batzuen arabera jokatzen ari direla. Gure begien aurrean halako teatro bat antzeztzen ari dira, eta denok dakigu antzeztutakoak jarraitu beharreko pautak (gehiago edo gutxiago) dagoeneko hitzartuta daudela haien berri eman ez zaigun mahai batzuetan. Eta, ni behintzat, antzezte nagusiek egiten dutenean oinarrituta hitzartutakoa deduzitu nahian nabil, horrek antzerkia ulertzen lagunduko didalakoan (alferrik halere, ez baina ezertaz enteratzen).

Asteazken honetan telebista parean Lost ikusten ari nintzela, dibertigarri irizten dudana paralelismo bat etorri zitzaidan burura. Josu Jon ere telebista parean imajinatu nuen, bere buruari gainontzeko ikusleok geure buruari egiten diogun galdera bera egiten: ze ostia ari da gertatzen hemen?

TOLOSALDEKOHITZA  
.INFO ▶Zer aukeratzen  
duzu oporretan  
ostatu  
hartzeko?

Hobena kanpiñe, naturan erdin, belarretan botata, ta al bada belarra erretzen!

KANPING-GAGS ▶

Hotelak garestiegiak dira. Prezioak jaitsi!

LAURA ▶

Kanpina, beste erremediorik etzait geratzen, diruak ez du gehiagorako ematen eta...

ORDOTXA ▶

Nik nahiago det Kanpina, eta hori arrazoi delarik aurtengo udaberria bat erosi eta guzti egin degu. Karabana bat erosi degun Errioxako kanpin batean.k apartamentua naixau dot.

LARRAITZ ▶



Jendea erosi eta erosi aritu zen.



Udako nahiz neguko oinetakoen eskaintza zabala ikus zitekeen.



Jendea, eskuan boltsa ugari zituela ateratzen zen frontoitik. E.E.

TOLOSA ▶ MUGIKORTASUN ASTEA

MADDI SOROA

**J**aun andreok, ongi etorri Tolosako autobusera. *Tolosan autobusean* zerbitzuan zaude. Espero dugu gus-toko bidaia izatea.

Goizeko bederatziak dira. San Frantzisko elizan gaude. *Tolosan autobuseaneko* ordu-tegia begiratu eta 09:01ean autobusa iritsiko dela dio kartelak. Pablo Gorosabel aldera begiratu eta hantxe dator autobusa, puntual-puntual.

Berrogeita hamar zentimo ordaintzeaz bat, gora igo gara, autobus urdin eta zurira, Tolosako koloreak dituen autobus berritura. Gidariari diosala egin eta lekua hartu dugu lehio ondoan, esnatu berria den Tolosaz gozatzeko. Barneko tripulazioa: motxiladun lau emakume heldu, bi gizonetako edadetu eta herizain bat. Guztiak ere, autobuseko txartelarekin sartu dira barrura. Nabaria da egunerokotasuean autobusean ibiltzen direla.

Kanpoan, han hemenka dabil jendea. Gaztetxoek eskolara doaz trasteak bizkarrean hartuta, berandu. Helduen artean denetik dago, eskuartein paper piloarekin lanera doana; erosketak goizean goiz egitea gustuko duena edota goizeko eguzki printzak aprobetxatuz eguneroko paseotoxa egiteaz gozatzen duena.

Berazubira iritsitakoan autoak ageri dira harantz eta honantz. Herrian lan egiten dutenak badatoz, herritik kanpo lan egiten dutenak badoaz. Muletadun emakume bat igo da geltokian. Asuncion Klinikara doala agertu dio gidariari, baita autobusik gabe mugitze-



Paisaia ederrak ikus daitezke autobuseko leihoetatik. m.s

# Tolosa autobusez

50 zentimoren truke, ikastoletara, kiroldegira, erosketak egitera edota klinikara zaramatza ikusmira ederrean

rik ez lukeela izango azaldu ere.

Hurrengo geltokia, Usabalgoa da, ez da inor igo, ordea, haurrak eskolan baitaude dagoeneko. Eguerdian, igoko dira berriro ere, eskolatik etxera joateko. Autobusak bere bideari ekin dio, bidaiariak beren helmugetara eraman behar baititu. Asko dago egiteko.

Din-don! entzun da goikalde-tik, San Frantzisko elizako geltokian igotako lau emakumezkoetako batek geldialdiaren botoia zapaldu du. Kiroldegian dute heuren zita, antza. Haurrak eskolan utzi eta kirola egitera doaz, gorputza osasuntsu mantentzea gogoko dute baitute.

Usabalgo pabiloietan barna, Amarotzeraino iritsi da hiribusa, hantxe jaitsi da bertako herizaina, azken orduan korrika ibili ordez, nahiago izaten omen du autobusez joatea, lantokira puntual iristeko. Geltoki berean, bi emakume igo dira haur batekin. Pozik dago haur txikia, autobusera igotzen den lehenengo aldia baitu.

Eguneroko ibilbidea jarraitu du gidariak. Gaizki aparkaturiko autoren baten erruz arazoko izan dituen arren, autobus luzea gidatzen trebea dela erakutsi du; baita Asuncionera iritsitakoan ere, ez baita erraza bertan buelta ematea. Orduantxe jaitsi da muletadun emakumezkoa, baita bi gizonetakoak ere, lagun bat omen daukate erietxean gaixo eta hura bisitatzerako doaz. Udaletxea izan da hurrengo geltokia, jendea igo egin da baina guk ibilbidea amaitu dugu.

Ongi etorri Tolosako autobusera...

DATUAK ▶

Europako Mugikortasun Astearen baitan, garraibideen inguruko ikerketa egin du HITZAK. Garraibiderik erabilienean kotxea dela kontutan izanik, eskualdeko herri nagusienetan dagoen garraibide kopurua jakin du. Baita etxe bakoitzeko zenbat garraibide dagoen ere.

**ALEGIA**  
Autoak. 764  
Kamioiak/Furgetak. 49  
Motoak. 48.  
Ziklotorrak. 37.  
Biztanleak. 1.701.  
Biztanleko garraibide kopurua. 0,52

**LEITZA**  
Autoak. 1.868.  
Kamioiak/Furgetak. 249.  
Motoak eta ziklotorrak denera. 145.  
Biztanleak. 2.953.  
Biztanleko garraibide kopurua. 0,76.

**TOLOSA**  
Autoak. 7.541  
Kamioiak/Furgetak. 373  
Motoak. 368.  
Ziklotorrak. 268.  
Biztanleak. 17.951.  
Biztanleko garraibide kopurua. 0,47

**VILLABONA**  
Autoak. 2.604  
Kamioiak/Furgetak. 174  
Motoak. 127.  
Ziklotorrak. 106.  
Biztanleak. 5.777.  
Biztanleko garraibide kopurua. 0,52.

IV. HITZA ARGAZKI LEHIAKETA ▶

# Baditugu finalistak!

IV. HITZA Argazki Lehiaketako zortzi finalistak aukeratu ditu jada epaimahaia; orain, harpidedunek hautatu beharko dute horietatik onena; puntu gehien lortzen dituzten bi argazkiak sarituko dira

**ERREDAKZIOA**

Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza antolatutako IV. Argazki Lehiaketa arrakastatsua izan txanpara iritsi da. Udako oporraldia gai bezala hartuta, irakurle askok aurkeztu dituzte lehiaketara irudiak. Bi orrialdeotan daude zortzi aukeratuak. Bada, hemendik aurrera harpidedunek izango dute zortzi argazkien artean onena hautatzen erantzukizuna. Argazkiak izendatu ditugun zenbaki horiek erreferentziat hartuta, gustukoena aukeratu beharko duzue orain.

Bakoitzak gustuoen duen argazki bakarra aukeratu beharko du, eta bere erabakia hitzari jehinaz. Bi bide dituzue horietarako: posta elektronikoa eta telefonoa. Hartu parte, botoa ematen duten guztien artean opari bat zozketatuko baitu Hirzik.

**XEHETASUNAK ▶**

**IRABAZLEEN HAUTAKETA**

**Botoa nola eman.**  
 ▶ Lehiaketarako dela zehatuz, aukeratu behar du argazkiaren zenbakia azalduz, eta harremanetan jartzeko datuak jarri, tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info helbidera bidali.  
 ▶ Hirzik egotzara deituta: 943 65 56 95.  
**Araua.** Harpidedun bakoitzak

behin baino ezin izango du botoa eman.


**IRABAZLEENTZAKO SARIAK**

▶ Irabazleek asteburu bat igaro ahal izango du Euskal Herriko landebe batean.  
 ▶ Bigarren sardunak bi laguntzat afera irabaziko du Plaza Ebeberri.  
 ▶ Partaideen artean eta botoa ematen dutenen artean materiala zozkatuko da.



1

**Aloña Usandizaga (Iruia).** Argentinako Iguazu kataratetan alera zuen argazkia, uztailean. «Kataratak urik gabe daudela esaten duten arren, oraindik ura kus dezakegu».



2

**Aitziber Zabala (Ibarra).** Iratn ateratako argazkia da hau. Bertan argazkiak ateratzen ibili ginen, eta halako batean bi armiarma borrokan edo, topatu geniuenu».



4

**Mikel Castro (Berastegi).** Santa Sofiaren eliza (Istanbul). «Lehenengo kristau eliza, gero meczita musulmana, eta orain museo ederra da».



5

**Fernando Rojo (Tolosa).** Toronto (Toronto Island-etik aterata). «Kanadako hiri handiena eta kosmopolitena da. Interesgarria, erakargarria, irekia».




3

**Ura Iturralde (Tolosa).** «Nork esan Cocodrilo izeneko Kubako herri biki zakar xamar batean honelako ume ederrik aurki genezakeenik».



6

**Egoitz Bengotzea (Villabona).** Casteret-eko Guta Helelda famatuaun ateratako argazkia da hau. Abzean, Gabietou tonbrira ageri da.



7

**Ion Garmendia (Ibarra).** Argazkia hau Norvegiako Preikestolen hirian aterata daigo, Fiordetan. «Abuztuaren tralparta emanaldia emateko joan ginen eta paisaia poit honetan egin genuen saioetako bat, 600 metroko haitzaren gainurrean, hain zuzen».



8

**Nerea Lopetegi (Leaburu).** Turkan barrena. «Irronako hainbat erudi bizi izan genituen Turkiako errepideetan. Hala ere nor die bibiago bera guretzat edo gu harentzat?».

**Zubia ikusmiran**

|                                    |             |
|------------------------------------|-------------|
| <b>Ruta Conquistadores</b>         | <b>199€</b> |
| <b>Madrid</b>                      | <b>210€</b> |
| <b>Costa Azul</b>                  | <b>239€</b> |
| <b>Lisboa</b>                      | <b>249€</b> |
| <b>Bruselas</b>                    | <b>269€</b> |
| <b>Bretaña-Normandia</b>           | <b>275€</b> |
| <b>Valle del Leira-Futuroscope</b> | <b>289€</b> |
| <b>Tenerife</b>                    | <b>546€</b> |
| <b>Lanzarote</b>                   | <b>561€</b> |
| <b>Tenerife</b>                    | <b>581€</b> |
| <b>Tenerife</b>                    | <b>614€</b> |
| <b>Lanzarote</b>                   | <b>731€</b> |
| <b>Lanzarote</b>                   | <b>846€</b> |

**100€ Den-dena**

100 euro-ko 100€ tax aurkitze ezazu orain!

**EROSKI bidaiak**

## TOLOSA ▶

Fruta zerrenda  
zabala,  
udazkeneko  
lehen azokan

Bertako fruta eta barazki ugari bai, baina onddo eta ziza gutxi dago oraindik

PABLO ALBERDI

Atzoko azoka eguna nobedadez beterikoa suertatu zen. Fruta zerrenda adibidez oso bete izan zen, eta berrikuntza bezala, aurtengo lehenengo mizpiradiak ikusi genituen. Hauek hirutan saldu ziren, eta errezil sagarrekin, intxaurrekin, hurrekin, eta gaztainekin, udazkeneko fruta zerrenda izaugarria osatu zuten. Barazki eskaintza ere ez zen makala izan, eta udarako barazkiei, udazkeneko asko, gehitu egin zitzaizkien. Babarrunak, azaloreak, azelgak, kalabaza, pepinoa edo eta kalabazina adibidez.

Onddo eta perretxiko zerrenda, orokorrean, joan den astekoaren berdina izan zen. Bertako onddo gutxi, ziza hori dezente. Berrikuntzei dagokionez, berriz, gamuza pare bat kilo.

## ATZOKO AZOKA ▶

| Gaia            | merk. | gares. |
|-----------------|-------|--------|
| Berdura plaza   |       |        |
| Japoniar azalea | 5,00  | 8,00   |
| Porrua          | 2,40  | -      |

## Bertako produktuak

|                 |       |      |
|-----------------|-------|------|
| Onddo           | 24,00 | -    |
| Errezil sagarra | 2,00  | -    |
| Hurra           | 3,00  | 4,00 |

## TOLOSA ▶ KULTURA



Atzoko inaugurazioan, kanpoaldeko plaka kentzeko garaian. HITZA

Abesbatzek  
egoitza berria

Gipuzkoako Abesbatzen Federazioak atzo burutu zuen inaugurazio ekitaldia

## ERREDAKZIOA

Gipuzkoako Abesbatzen Federazioak bere egoitza berria inauguratu zuen atzo, Tolosan. Idiakez Jauregia eraikin historikoaren bigarren solairuan. Ekitaldian izan ziren, politika eta kultura arloko ordezkariak. Eraikinaren kanpo aldean plaka bat zabaldu ondoren, gonbidatu guztiek Orereta abesbatza entzun ahal izan zuten, eta instalazioak ezagutu ahal izan zituzten. Politikarien artean Leire Ereño Gipuzkoako Batzar Nagusietako Lehendakaria; Arantza Arzamendi Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaria eta Jokin Bildarratz Tolosako Alkatea izan ziren.

Egoitza inaugurazio ekitaldian, Aitor Imaz Gipuzkoako Abesbatzen Federazioko Lehendakariak azpimarratu

zuen, egoitza egoki bat edukitzeko elkarteak zuen beharra. Izan ere, Gipuzkoan 100 abesbatza baino gehiago daude federatuta, eta hauek dituzten beharrei erantzuteko leku bat behar zen. Hau kontuan hartuta, Federaziokoek ustetan, «Idiakez Jauregiak ongi baino hobeto betetzen ditu baldintza horiek». Aurkezpenean parte hartu zutenek goraiatu zuten, egoitzan eginiko berrikuntzak, eta bat etorri ziren esatean, «Tolosa inoiz baino gehiago abesbatza munduan nahitaeko erreferente bihurtu dela».

Eraikinaren jabe den Casino elkartearekin 14 urtetarako hitzarmena sinatu ondoren, etapa berri bati ekin dio erakunde honek. Gainera, bertatik, hau da egoitzatik, Gipuzkoako abesbatzei zuzendutako ekintza desberdinak bideratu eta bultzatu ahal izango dira.

## VILLABONA ▶ KULTURA



## Villabona zirko bihurtu zen

E. Ezeiza ▶ Atzo, Villabonako Gaztetxeak antolatutako Zirkoaren egunaren baitan, Atarrabiako Gas Malabare Taldeak malabare ikastaroa eskaini zuen gaztetxoenei. Hala, euri zaparrada handia hasi arren, haur eta guraso ugari hurbildu zen. N.U.

## VILLABONA ▶ ANTZERKIA



## Gurekin, Poxpolo eta Mokolo

E. Ezeiza ▶ Beste behin ere, Gurea antzokia bete betetzea lortu zuten Poxpolo eta Mokolo pailazoek. Hauek, atzo, beraien DVD berriaren grabaketa egin zuten Villabonan, eta beti bezala, ikusleei barre egin arazi zuten beraien antzezlanarekin. NEREA URBIZU

## iragarki laburrak ▶

## LAN HEZKUNTZA

Gidariak. Plaza libreak betetzeko behar dira: Eusko Jaurlaritzan, Udaletxeetan eta Erakunde

Publikoetan. 943313782.

Harreragileak -Administrari laguntzaileak. behar dira Erakunde Publikoetan. 943313782.

## UEUren GRADUONDOKOEN ESKAINTZA

Doktorego programa 2006-2008  
(EHUK antolatuta):

Hizkuntzaren azterketa  
eta prozesamendua

Zientzia tekniko zein humanitate arloko  
lizentziatuei zuzenduta.

Izen ematea irailaren 3 oerarte!!

Informazio gehiago: [www.ueu.org](http://www.ueu.org) / 943 82 14 26  
titulazioak@ueu.org



Udako Euskal Unibertsitatea

**Bat** Garajea  
Ondo pasa Irurako jaietan!  
Telf.: 943692205 • Faxe: 943693771 • Ibaiondo Indus. 11 • 20271 IRURA



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

IRURA ▶ JAIK

# Ostiralean piztutako sua, indartsu

## Atzoko marrazki lehiaketan eta apar festan haur askok hartu zuten parte

NEREA URBIZU

Ostiraleko Irurako jaien hasiera ez zen gutxiagorako izan: jendeak gogoekin ekin zien jaiari. Herensugeak ahotik botatutako suak, gutxienez, hurrengo asteburura arte iraungo du.

Atzokoan marrazki lehiaketan ume asko izan ziren parte hartzen: ez ziren horrenbeste patata tortilla lehiaketan ibili, ordea, hiru bikotek hartu zuten parte bertan. Arkupeetan aritu ziren patatak zuritzen, ondoren arrautzekin nahasteko.

Apar festak asko animatu zuten Irurako plaza ingurua. Askok gogoekin geratu ziren,

haurren gozamen aurpegiei begira. Bazkaria egingo zuten ondoren, plazan jarritako mahai luzeetan. Arratsaldean Pirritx eta Porrotx aritu ziren Loatzoko plazan.

Gazteagokoentzat pentsatutako kontzertua izan zen gauean. Su ta Gar eta Pikutara aritu ziren eliza ondoan jotzen. Ordu beretsuan garbikatuaren ondoko plazan Alazan taldeak gorputzak astintzeko dantzaldia eskaini zuen.

Gaur, 11:00etan meza izango da, eta 12:30ean Gorritik ekarritako abereak, San Migel plazan. Arratsaldean, berriz, herri kirolak izango dira pilotale-



Patata tortilla lehiaketan hiru bikotek hartu zuten parte: hirurek seguruenik, saria jasoko dute. ESTI EZEIZA

kuan: Nazabal eta Olasagasti aizkolariak eta Perurena harri-jasotzaileak. 18:30ean Andra Mari Dantzari taldearen txanda izango da, frontoian ere. Legoya taldeak erromeria eskainiko du ondoren, San Migel plazan.

Astelehena indarrak bertuteko eguna izango da, asteartean 17:00etan jubilatuek San Migel plazan eta biltokian jokoa egiteko. Berriz ere ostegun arratsaldean helduko diete festei irurarrak, trinketean herriko Pilota Eskolako haurren arteko pala eta xare partidak ikusteko pilota partidekin.



Apar festan aspertu arte ibili ziren gaztetxoak. N. URBIZU

IBARRA ▶ JAIK



Bizi Nahi jubilatuen elkarteak antolatutako toka txapelketako partaideetako bat, jaurtiketa egiten. E. EZEIZA

# Bizi Nahi jubilatuen elkarteak, tokan trebe

## Gaur bukatuko dira helduenen jaiak

N. URBIZU

Jubilatuek Bizi Nahi elkarteak antolatutako jaiekin ederki igaro zuten, atzo. Toka txapelketa antolatu zuten lehenik eta gizon eta emakumez osatutako 8 bikote osatu zituzten. Hamaketakoa izan zuten ondoren,

langostinoak eta baita Ibarra-ko bertako piparrak ere. Arratsaldean, aldiz, haurrentzako jolasak izan ziren.

Gaur, 08:00etan diana izanik, eta 11:00etan meza. 13:00etan dantzariak izango dira eta gero bazkaria, Ibarra-ko pilotalekuan.

iragarki laburrak ▶

hilberriak ▶



## Andres Salegi Sarasola



ATZO hil zen, 80 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

— Golan bego —

Emaztea: Jesusa Jauregi; seme alabak: Josune eta Andoni Eskisabel, Amaia eta Bittor Alberdi; bilobak: Eneko eta Maddi; anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideek.

Haren animaren alde oitotz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitetzela GAUR igandea, arratsaldeko SEIETAN, ANDRE MARI JASOKUNDEAREN parroki elizan, GORPUA BERTAN dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Helbidea ▶ Nagusia 28-1.

oharra ▶ gorpua Beasaingo GOIERRI BEILATOKIAN egongo da

ITSASONDO, 2006eko irailaren 24a

LANA

**Etxeko lanak.** Pertsona bat behar da goizez. 669 21 33 37.

**Sukaldaria.** Tolosaldeko taberna baterako sukaldean dakien pertsona behar da. 686 03 29 01.

**Ileapaintzailea.** Ileapaindegirako langilea behar da, lanordu osorako. 652 76 90 92.

**Tabernaria.** Neska euskalduna behar da 4 orduz lan egiteko, Tolosaldean. Eskarmantatua. 635 74 52 91.

**Irakaslea.** Klase partikularrak emateko magisteritzan diplomatua eskaintzen da. LH eta DBH-ko

ikasleei zuzendua. 687 67 37 00.

SALGAI

**Egurra.** Tximenetako zatituta dagoen pago enbor lehorra salgai. 646 53 71 15.

**Furgoneta.** Mercedes Vito, 110 D. Mistoa. 1997koa. 646 13 05 47.

**Pisua.** Leitzan pisua salgai, 100 m<sup>2</sup>, igogailua eta trastelekuarekin. 699 461 365.

BESTEAK

**Katukumeak.** Katukumeak oparitzen dira, pertsona arduratsuentzat. 943 65 39 55.



**ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ 2006ko irailaren 24a, igandea ▶ IV. urtea**

GAURKO EGURALDIA



**HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA**

**943 30 43 46**

**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Lizartza.** 12:00etan omenaldia *Inaren* monolitoan.

**Tolosa.** Haurren katekesirako izen-ematea, Santa Maria parrokiaren egingo da, hilaren 27an eta 28an.

**Larraitz.** Estebanen herailketaren 7. urtemuga da asteartean. Omenaldia gaur izango da, 12:00etan. Lore eskaintza ere izango da. Tolosako Amnistiaren aldeko mugimenduak deituta.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
**Tolosa.** Olarreaga, A. Korreo kalea, 2. 943 67 01 28.

Areso. Goizueta, F. Loidi etxea. 112.

**Bihar**

**Tolosa.** Olarreaga, J. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.  
**Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.

**IRRATIA**

**Txolarre irrattia (107.5, 101.2 FM)**

**Gaur**  
 10:30-13:00. *Hitzak hegari* magazina (errepikapena).

**Bihar**  
 11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotza* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, agenda, Hitzaren errepasoa, albisteak, elkarrizketak, lehiaketa, disko eskainiak...

19:00-21:00. *Tolosaldeko ahotza* (errepikapena).

21:00-22:00. *Argizirin aitaldia*, Xorroxin irratiaren saioa, Arrosa Irrati Ekoizpen Zentroaren eskutik.

▶ HITZak ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

**AGURRAK ▶**



**URTE ASKOAN**

**Haritz Mujika Lasa (Asteasu).**  
 Gaur gure gizonboak 11 urte. Zorionak familian partetik. Muxu handi bat.

**Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.**

- ▶ HITZAren egoitza TOLOSAN Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza LEITZAN Udaletxeko bulegoa

**hitza** agurren tarte

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...



**URTE ASKOAN**

maite zaitut, Maite, maite zaitugu, pilla, pilla... Urte askoan Maite eta Iker.



**URTE ASKOAN**

Urruneko barroteek ez ditazela gure 24 muxu potoloak geldiarazi. Urte askoan polite! Besarkada bat. Aupa Aharikotalka!

